



1 – Présentation :

La cantine périscolaire est un service public administratif à caractère facultatif dont l'organisation relève de la compétence de la commune.

2 - Organisation :

Le service est assuré dans le bâtiment communal situé derrière la garderie, les **lundis, mardis, jeudis et vendredis de l'année scolaire**. Les menus sont affichés chaque semaine à la cantine, dans les écoles et sur le portail famille de la commune. Les repas sont préparés et livrés en liaison chaude par l'association Jantegi de Cambo-les-Bains.

A l'intérieur des locaux, les enfants sont placés sous la responsabilité des agents communaux qui assurent le service du repas et la surveillance :

- de 12h à 12h40 : déjeuner des élèves de maternelle
- de 12h50 à 13h30 : déjeuner des élèves du CP au CM2.

3 – Conditions d'accès :

Le service de cantine périscolaire est accessible à condition :

- **d'être scolarisé dans l'une des trois écoles primaires de la commune.** Pour les élèves inscrits en maternelle, seuls ceux qui atteignent 3 ans avant le 31 décembre pourront bénéficier du service dès la rentrée de septembre. Les enfants qui ne remplissent pas cette condition pourront être admis dès qu'ils auront l'âge de 3 ans ; le service n'étant pas approprié pour les accueillis.
- **d'avoir complété, signé et retourné la « fiche de renseignements des services périscolaires » en mairie, avec la mention « inscription cantine OUI » cochée.**

Dans le cas d'une garde alternée, chaque parent renseignera individuellement une fiche de renseignements.

4 –Modalités d'inscription :

Dans un souci de fonctionnement rigoureux du service (commande-facturation), la commune RÉSERVE TOUS LES JOURS PAR DÉFAUT les repas à hauteur des élèves inscrits au service.

A charge des familles d'indiquer que leur(s) enfant(s) ne fréquentera (ront) pas la cantine en se connectant sur le portail famille sachant que toute annulation doit intervenir au plus tard le matin du jour concerné à 9h15.

5 – Tarifs / Aide financière :

Le prix du repas est fixé par délibération du conseil municipal.

Les tarifs applicables depuis le 1^{er} septembre 2016 s'établissent comme suit :

- enfants habitant à Itxassou : **3,50 € l'unité** ;
- enfants extérieurs à la commune : **4,20 € l'unité** ;

Les tarifs peuvent être révisés en cours d'année scolaire.

Une aide du Département peut être attribuée dans certaines situations. Dans ce cas, il convient de se rapprocher de l'assistante sociale de secteur (centre multiservices de Cambo-les-Bains au 05 59 93 50 50).

La commune d'ITXASSOU a instauré une aide financière allouée en fonction du Quotient Familial (QF) à destination des élèves scolarisés à ITXASSOU et dont le foyer du représentant légal se situe sur ITXASSOU. La tarification applicable pour l'année scolaire 2021/2022 est fixée de la manière suivante :

- QF ≤ 500 € : aide de 2,00 € / repas / élève ;
- QF > 500 € et ≤ 850 € : aide de 1,50 € / repas / élève.

Chaque famille éligible adressera à la commune les 1^{er} septembre, 1^{er} janvier et 1^{er} avril de l'année scolaire son attestation de quotient familial. Cette aide ne saurait être cumulée avec une autre aide consentie pour ce service notamment l'aide du Département.

1 – Aurkezpena :

Lehen mailako eskoletako jantegia, zerbitzu hautuzko publiko administratibo bat da ; honen antolakuntza Herriko etxearen gain da.

2 – Antolakuntza :

Zerbitzua, haurtzaindegia gibelean dagon herriko eraikuntzaren barnean kokatua da eta **ikasturteko astelehena, asteartea, osteguna eta ostirala** irekia da. Bazkari-gaiak, jantegian, eskoletan eta Herriko Etxeko familia atarian agerian daude aste guziz. Apairuak, Kanboko Jantegi elkarteak apailatzen eta bero-beroak ekartzen ditu.

Jangelan, herriko langileek bazkariaren zerbitzua eta haurren zaintza segurtatzen dute :

- **12:00etatik 12:40rat : ama eskolako haurren bazkaria**
- **12:50etatik 13:30rat : CPTik CM2rat diren haurren bazkaria**

3 – Sartze baldintzak :

Eskolaldiaren inguruko jantegi zerbitzuan onartua izateko baldintzak :

- **Herriko hiru ikastegietatik batean izena emana behar da.** Ama eskolan izena emana daukaten haurretan, abenduaren 31a aitzin 3 urte bete dutenei, aitzineko buruileko sartzetik goiti jantegiko zerbitzua irekia izanen zaie. Baldintza hori betetzen ez dutenek, hiru urte bete orduko jantegiko zerbitzuan onartuak izanen dira ; zerbitzua ez baita jabetua haien errezerbitzeko.
- **“Eskolaldiaren inguruko zerbitzuei buruzko xehetasun fitxa” osaturik, izenpeturik eta Herriko etxeari itzulirik, “Jantegian izen ematea BAI” aipamena kaxoturik.**

Aldizkako zaintza kasuan, buraso bakoitzak xehetasun bakarkako fitxa bat bete behar du.

4 –Izen emate moldeak :

Manatze-fakturatzeko zerbitzuaren funtzionamendu trinko baten axolaz, Herriko etxeak, KONTRAKORIK EZ BADA ERRATEN, zerbitzuan izena emana duten arabera haurren kopurua ERRESERBATZEN du EGUNERO.

Familien gain da, Herriko etxeari jakinaraztea bere haurr(a/e)k ez du(t)ela jantegian bazkalduko, familia atarian konektatuz, jakinez, ezeztatzeak egun berean jakinarazi behar direla, goizeko 09:15etan

5 – Prezioak / Diru laguntza :

Apairuaren prezioa, Herriko kontseiluko deliberoz hona hontan finkatua izana zen :

2016ko irailaren 1etik geroz aplikagarriak diren prezioak, hona honetan finkatuak dira :

- Itsasun bizi diren haurrentzat : **3,50 € apairuka** ;
- Itsasun bizi ez diren haurrentzat : **4,20 € apairuka**

Ikasturtean prezioak berrikusiak izaiten ahal dira.

Departamenduko diru laguntza bat eskainia izan daiteke egoera batzuren arabera. Kasu horretan bazine, zure eskualdeko gizarte aholkulariarengana joan behar duzu (Kanboko zerbitzugaria deituz: 05 59 93 50 50).

ITSASUKO Herriko Etxeak diru laguntza bat abiatu du, Familia Kuozientearen (FK) arabera, ITSASUN eskolatuak diren haurrentzat eta zeinaren legezko ordezkariaren egoitza ITSASUN kokatua dena. 2021/2022 ikasturteari aplikagarria den tarifakzioa hona honetan finkatua da:

- FK ≤ 500 € : 2,00 €ko laguntza / bazkari / ikasleka;
- FK > 500 € eta ≤ 850 € : 1,50 €ko laguntza / bazkari / ikasleka.

Hautagarriak izan daitezkeen familiek beren familia kuozientearen frogagarria igorriko dute, ikasturteko irailaren 1ean, urtarrilaren 1ean eta apirilaren 1ean. Laguntza hori ez daiteke, zerbitzu horrentzat onartua izan den gisa bereko laguntza batekin metatu, adibidez Departamenduaren laguntza.

6 – Paiement :

Tout repas n'ayant pas fait l'objet d'une annulation sera facturé.

La facturation est établie en fin de mois et adressée par mail ou par courrier via l'école (au choix dans la fiche).

Le règlement doit intervenir au plus tard à la fin du mois suivant l'émission de la facture :

- soit par **prélèvement automatique** (pour cela, se rendre en mairie pour compléter l'autorisation et fournir un RIB) ;
- soit par **paiement « en ligne » par carte bancaire** en se connectant sur le portail <http://www.tipi.budget.gouv.fr> ;
- soit **auprès de la Trésorerie de Cambo-les-bains**.

Tout impayé fera l'objet d'une 1^{ère} relance par courrier. Si cette relance s'avérait infructueuse, la Commune transmettra un 2^{ème} courrier avec proposition de solutions à l'amiable.

En l'absence de réaction des parents, le Trésor Public de Cambo-les-Bains déclenchera la procédure de recouvrement.

7 – Traitement médical / Accident / Allergie :

Le personnel communal n'est pas habilité à administrer de traitement médicamenteux aux enfants (hors cadre Projet d'Accueil Individualisé - PAI)

En cas de maladie contagieuse, les enfants seront soumis aux mêmes règles d'éviction que dans le cadre scolaire.

En cas de problème de santé ou d'accident, les parents ou toute autre personne désignée dans la fiche de renseignements seront avertis.

En cas d'urgence, le personnel communal avertira le SAMU (15) et préviendra immédiatement les parents afin qu'ils se mettent en relation avec les services de secours.

Si en raison d'un trouble de santé invalidant (pathologie chronique, allergie), l'enfant doit bénéficier d'une prise en charge particulière (suivi d'un traitement médical, protocole en cas d'urgence), un PAI doit être mis en place à la demande de la famille et du chef d'établissement auprès de la médecine scolaire.

Ce n'est qu'après signature de ce document entre toutes les parties que l'enfant pourra être admis à la cantine afin qu'il puisse bénéficier d'aménagements spécifiques.

L'octroi d'un PAI ne donnera lieu à aucun abattement sur le prix du repas.

8 – Comportement :

La cuisine est interdite à toute personne étrangère au service. Il est interdit de fumer à l'intérieur des locaux et aucun animal ne doit y pénétrer.

Les locaux et le mobilier mis à la disposition des enfants appartiennent à la commune. Toute dégradation effectuée par l'enfant entraînera la responsabilité des parents et le remboursement des dégradations.

Le repas des enfants à la cantine est un moment propice à l'apprentissage du vivre ensemble dont les agents communaux et les enfants sont les garants : le respect de chacun est la clé de voûte d'une pause méridienne sereine et le rôle des parents est essentiel dans cet apprentissage de la vie en commun.

Les règles de vie sont travaillées en conseil des enfants. Avec la participation de ces derniers, des agents communaux, des responsables d'établissements, des représentants des parents et des élus pour que tous soient acteurs et responsables de la bonne marche du service.

9 – Perte-vol :

La commune d'ITXASSOU n'est pas responsable des vols et pertes d'objets personnels pouvant survenir durant le service.

10 – Engagement :

Le présent règlement est à conserver par la famille. Par l'apposition de sa(leur) signature sur la fiche de renseignements, le(les) responsables(s) légal(aux) l'accepte(nt) sans réserve.

6 – Ordainketa :

Ezeztatua izan ez den bazkari oro, fakturatuko dugu.

Fakturazioa hilabete hondarrez egiten da eta Emailez edo postaz eskolaren bidez igortzen dugu (fitxan hauta ezazu).

Ordainketak, fakturaztearen ondoko hilabete hondarrean agertu behar du berantenik :

- edo **diru kentze automatikoz** (horretarako, Herriko etxera joan behar duzu baimen orriaren osatzera eta zure Banku Agiriaren emateko) ;
- edo « **web saretik** » pagatuz banku kartaren bitartez, ondoko webgune honetan : <http://www.tipi.budget.gouv.fr> ;
- edo **Kanboko Diruzaintzan Nagusian**.

Ordaindu gabe gelditu balitz, lehen oroitazte gutun bat igorriko dizugu. Honek ondoriorik ez balu, Herriko etxeak bigarren oroitazte gutun bat igorriko dizugu, onez-oneko aterabide eskaintza bat luzatuz. Gurasoek ez balute ihardesten, Kanboko Diruzaintza Publikoak diru berreskuratze prozedura abiatuko du.

7 – Tratamendu medikalak / Istripuak / Alergiak :

Herriko langileak ez dira tratamendu medikalak haurrei emaitako gai (Batbederaren Harrerarako Proiektu -BHP- koadrotik kanpo).

Eritasun kutsakorren kasuetan, haurrak eskolako kanporatze arau beretan meneratuko ditugu.

Osagarri edo istripu edozoin arazo gerta baladi, burasoak edo « Xehetasun fitxa »n aipatuak diren beste pertsonak deituko ditugu.

Larrialdi kasuetan, herriko langileek SAMUa deituko dute (15) eta burasoei berehala jakinaraziko diete, sokorri zerbitzuekin harremanetan jar ditezen.

Haurrak elbagarri den osasun arazo baten ondorioz (eritasun kronika, alergia), artatze berezi batez behartua baldin bada (mediku tratamendu baten jarraitzea, urgentzia kasutako protokolo bat), bakoitzaren arabera Batbederaren Harrerarako Proiektu Koadro bat (HPK) antolatua izan behar da, familiak eta eskolako zuzendariak eskolako medikuari eskaturik.

Dokumentu hori, partaide guzietan izenpetu ondoren baizik, haurra jantegian onartua izanen da, malgatze berezi batzuen ukaiteko.

NHP baten emaitzak ez du bazkariaren prezioaren heinean ondoriorik izanen.

8 – Jokamoldea :

Sukaldea, zerbitzu kanpoko kideei debekatua zaie. Erretzea debekatua da barneetan eta abererik ez daiteke bertan sar.

Haurren esku utziak diren barneak eta altzariak Herriko etxearenak dira. Haur batek edozoin gauza andeatzen balu, makurren gastuak bere burasoen ardurapenaren gain litzateke.

Haurrek jantegian jaten dutelarik, elkarbizitza ikasten dute, eta herriko agenteak eta haurrak horretaz berme dira: bata-bestearen errespetua, eguerdiko pausa atsegin baten segurtamena da eta burasoen zerregina funtsezkoa da, elkarren arteko bizitzea ikasteko.

Bizi-arauak haurren batzorde denboran landuak dira. Haurretaz gain, herriko agenteek, ikastetxeetako arduradunek, burasoen ordezkariak eta hautetsiek ere parte hartzen dute delako batzordean, denak, zerbitzuaren ongi ibiltzearen aktore eta arduradun baitira.

9 – Galtzeak - ohointzak :

Itsasuko Herriko etxeak ez du beregain hartuko, zerbitzuaren denboran gerta litakeen haurraren pusken edozoin ohointza edo galtze.

10 – Engaiamendua:

Familiak, araudi hau atxiki behar du. Xehetasun fitxa izenpetu du(t)en ondorioz, legezko ordezkariak(ek) onartzen du(te) erreserbarik gabe.

Contact

Mairie : 05 59 29 75 36

population@itxassou.fr (service Ecoles)

accueil@itxassou.fr (Service annulation repas)

finances@itxassou.fr (service Facturation)

Harremanak

Herriko Etxea : 05 59 29 75 36

population@itxassou.fr (Eskoletako zerbitzua)

accueil@itxassou.fr (Bazkari ezeztatze zerbitzua)

finances@itxassou.fr (Fakturatzeko zerbitzua)